



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2022 FORU DEKRETUA, uztailaren 26koa, zeinaren bidez BATUZ sistemari borondatez atxikitzeari buruzko zenbait alderdi garatzen diren eta aldaketak egiten diren tributu-erregelamendu batzuetan.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira; horretarako, aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Hala, bada, foru-arau horren titulu bien bitartez, Batuz deritzon proiektuaren euskarri diren hiru zutabeen arau-oinarriak ezarri ziren; Batuz sistema, zehazki, ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunen edo entitateen kudeaketa integraleko eredia da. Hauek dira zutabe horiek: fakturazio sistemetan tresna teknologiko berriak ezartzea, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak nahitaez erabili beharra erabakita; jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona guztiek, fisikoak zein juridikoak izan, informazioaren gainean dituzten betebeharrak parekatzea, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua betetzeko betebeharra ezarrita; eta Bizkaiko Foru Ogasunak aitortzen zirraborroak jartzea zergadunen esku, beren zerga-betebeharrak errazago bete ditzaten, betiere beren jarduera ekonomikoen etekinak zergapetzen dituzten zerga nagusiei dagokienez.

Ezohiko inguruabarren ondorioz, abenduaren 13ko 6/2021 Foru Araua onartu behar izan zen, ekonomia suspertzeko neurriak, BATUZ sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzekoa. Foru-arau horren II. titularen helburua da Bizkaiko Foru Ogasunak BATUZ eredia ezartzearen alde egindako apustu tinkoaren eta hura aplikatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko zergadunek egin behar duten egokitzapen-prozesuaren arteko oreka ezartzea, kontuan hartuta zer konplexua den gaur egungo testuingurua.

Adierazitakoaren ildo beretik, Bizkaiko Foru Aldundiak Batuz sistemari lotutako betebeharren betetzea murriztu eta sinplifikatu nahi du, eta, horretarako, foru-dekretu honen bidez zenbait neurri hartzen dira, zergadunak sistema berrira errazago igaro daitezen sistema hori nahitaezkoa denean.

Hala, lehenengo eta behin, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretua aldatzen da; haren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako BATUZ sistemari borondatez atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-erregelamendu batzuetan. Zergen arloko profesional aholkularien sektoreak planteatutako eskaera aintzat hartuta, 1. artikulua aldatzen da, Batuz sistemari borondatez atxikitzeko aukera baliatu izana jakinarazteko epea abenduaren, martxoaren, ekainaren eta irailaren 15era luzatzeko.

Halaber, abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta, horren ondorioz, kontabilitate-mugimenduen kapituluak aurkezteko betebeharrak salbuetsita geratzen dira, 2023ko zergaldian ere, BATUZ sistemari lotutako betebeharrak borondatez betetzea hautatzen duten zergadunak. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikulua jasota dago kapitulu hori (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori).

Gainera, kontuan harturik sektore jakin batzuetan jarduera nagusiaren osagarri den jarduera bat egiteak Batuz sistemari dagokionez neurritz kanpoko betebeharrak betetzea ekar dezakeela, aldaketa bana egiten da Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduetan, zergei buruzko foru-arau-



tan ezarritako betebeharrak betetzetik salbuesteko, honako hauei dagokienez: jardue-
ra ekonomiko nagusiaren lagungarriak edo osagarriak diren ondasun-emateak eta/edo
zerbitzu-prestazioak, baldin eta laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu
automatikoaren bidez egiten badira, eta, betiere, aurreko ekitaldiko diru-sarreraren bolumen-
ak ez badu gainditzen zergadunaren ekitaldi horretako jarduera ekonomiko nagusiaren
sarreraren bolumenaren 100eko 15.

Azkenik, zergapekoek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez Foru
Administrazioarekin harremana izateko duten betebeharra errazteko neurri gisa, 3. ar-
tikuluaren bitartez data berri bat ezarri da, 2023ko abuztuaren 1a, eta egun horretara
arte zergapekoek BizkaiBai zerbitzuaren bidez jarduten jarraitzeko aukera izango dute.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren ara-
bera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru
Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, gene-
roaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen
duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen di-
tuen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta
Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua

Aldatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren 158/2021 Foru Dekretua, abenduaren 14koa;
haren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako Batuz sistemari borondatez atxikitzeko baldint-
zak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-
erregelamendu batzuetan.

Aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021
Foru Dekretuan (haren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako Batuz sistemari borondatez
atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak
egiten dira tributu-erregelamendu batzuetan):

Bat. Aldatu egiten da 1. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Aukera baliatu nahi delako komunikazioak –zeina ezeztazina izango baita–
aurkezten den egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango
ditu ondorioak, eta une horretatik aurrera bete beharko dira, eraginkortasunez, artikulua
honetan aipatzen diren betebeharrak. Aurreko paragrafoan adierazitako komunikazioa
behin baino ez da aurkeztu beharko, epe hauetako baten barruan:

- a) Urriaren 1etik abenduaren 15era bitartean, zergaldiko lehen hiruhilekoaren
lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi eko-
nomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak borondatez
betetzen hasteko lehen hiruhileko naturalean, zergaldia urte naturalarekin bat ez
datorrenean.
- b) Urtarrilaren 1etik martxoaren 15era bitartean, zergaldiko bigarren hiruhilekoaren
lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa
urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak borondatez betetzen has-
teko bigarren hiruhileko naturalean, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorre-
nean.
- c) Apirilaren 1etik ekainaren 15era bitartean, zergaldiko hirugarren hiruhilekoaren
lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa
urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak hirugarren hiruhileko natu-
ralean borondatez betetzen hasteko, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorre-
nean.



- d) Uztailaren 1etik irailaren 15era bitartean, zergaldiko laugarren hiruilekoaren lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo laugarren hiruileko naturalean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean».

Bi. Aldatu egiten da bigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen idatzita:

«Bigarren Xedapen Iragankorra. – Kontabilitate-mugimenduen kapitulua

Betebeharrak borondatez betetzea (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa) aukeratzen duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek ez dute aurkeztu beharko kontabilitate-mugimenduen kapitulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikuluan jasoa (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), 2022ko eta 2023ko zergaldikoei dagokiena.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da eragozpen izango Foru Dekretu honen 3. artikuluan aipatutako konpentsazioa aplikatzeko, horretarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badira.»

2. artikulua. – Jarduera ekonomiko lagungarria edo osagarria.

Bat. Hirugarren paragrafoa gehitzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 47. bis artikuluko 4. apartatuari, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuaren bidez emandako idazketan (foru-dekretu horren bidez, BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia), eta honela geratzen da idatzita:

«Halaber, zergadunak salbuetsita geratuko dira Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik, honako hauei dagokienez: jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarriak edo osagarriak diren ondasun-emateak eta/edo zerbitzu-prestazioak, baldin eta laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egiten badira, eta, betiere, aurreko ekitaldiko diru-sarreraren bolumenak ez badu gainditzen zergadunaren ekitaldi horretako jarduera ekonomiko nagusiaren sarreraren bolumenaren 100eko 15, zeina ekitaldi horretan eragiketa-bolumenik handiena duena izango baita. Jarduera ekitaldi horretan hasi denean, betekizun hori bete dela ulertuko da.»

Bi. Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 113 bis artikuluko 3., 4., 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuaren bidez emandako idazketan (foru-dekretu horren bidez, BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia). Artikulu horiek, hurrenez hurren, 4., 5., 6. eta 7. apartatuak izango dira hemendik aurrera, eta 3. apartatua aldatzen da. Honela geratzen da idatzita:

«3. Zergadunak salbuetsita geratuko dira Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikulua 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik, honako hauei dagokienez: jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarriak edo osagarriak diren ondasun-emateak eta/edo zerbitzu-prestazioak, baldin eta laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egiten badira, eta, betiere, aurreko ekitaldiko diru-sarreraren bolumenak ez badu gainditzen zergadunaren ekitaldi horretako jarduera ekonomiko na-



gusiaren sarreren bolumenaren 100eko 15, zeina ekitaldi horretan eragiketa-bolumenik handiena duena izango baita. Aurreko ekitaldia urtebetetik beherakoa bada, laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egiten diren ondasun-emateen eta/edo zerbitzu-prestazioen eta jarduera ekonomiko nagusiaren eragiketa-bolumena kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta urte osoari zer bolumen legokiokeen kalkulatu da. Jarduera ekitaldi horretan hasi denean, betekizun hori bete dela ulertuko da.”

3. artikulua.— Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretua aldatzea. Haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen da, administrazio elektrotikoaren arloan.

2023ko abuztuaren 1ean egindakotzat joko dira tituluan, 1. apartatuaren bigarren paragrafoan eta 2. apartatuaren hirugarren paragrafoan 2022ko abuztuaren 1ari buruz egindako aipamenak, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrekoak (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatu zen, Administrazio Elektrotikoaren arloan).

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 2022ko abuztuaren 1etik aurrera, Ogasun eta Finantza Sailak egin behar dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez soilik gauzatuko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren III. tituluko II. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera (2021eko abuztuaren 1etik indarrean dagoen idazketan), eta ez BizkaiBai zerbitzuaren bidez.

AZKEN XEDAPENETAKO

Lehenengoa.— Gaikuntza

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru.-dekretu hau gartzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.— Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2022ko uztailaren 26an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ